



_____jaun/andreak, _____NAN zenbakia eta
_____ helbidea dituenak, adierazten du
_____(r)en ama/aita / tutore/ordezkarria dela, eta BAIMENA
EMATEN DU honako hauetarako:

1 Adingabea **AZKENA ROCK FESTIVAL** -era joateko, bakarrik (16 urtetik 18ra bitartekoen kasuan) edo berak lagunduta (16 urtetik beherakoen kasuan). Adierazten du jaialdira joateko baldintzak ezagutzen eta onartzen dituela (jaialdiaren web orrian agertzen direnak: (<https://azkenarockfestival.com/eu/>) eta bere gain hartzen du adingabearen ardura jaialdiak irauten duen bitartean.

2 Nire kargura dagoen identifikatutako adingabearen irudia grabazioen, kaptazioen eta filmazioen bitartez hartzea, izan audioan, izan bideoan; argazkiak ateratzea eta beste edozein irudi eta/edo datu jasotzea bai ekitaldian, baita ekitaldia prestatzeko, ekitaldiaren osagarri eta/edo ekitaldiaren lagungarri egiten diren bestelako jardueretan ere; eta aipatutako hori guztia ustiatzea, hau da, eraldatu, editatu, sinkronizatu, zabaldu, erreproduzitu, ikusgai jarri, jendaurrean komunikatu eta banatzeko eta, oro har, ustiatzeko baimena, edozein formatu eta euskarritan, zabalkunderako eta ustiapenerako edozein baliabide erabilita eta edozein erabilera edo aplikaziotarako.

3 Grabazioak, filmazioak eta argazkiak osorik edo zati batean ustiatzea, eraldatuta edo eraldatu gabe, eta aurrez sinkronizatuta edo sinkronizatu gabe, edozein bitarteko edo kanalen bitartez, eta edozein bideo (publizitatekoak eta/edo sustapenekoak barne), after movie, dokumental, ikus-entzunezko produktiotan eta horien antzeko bestelakoetan txertatuta ere; era berean, hori guztia ustiatzea eta ekitaldiaren, ekitaldia antolatzen duen enpresa-taldearen edo ekitaldiari lotutako beste edozein entitateren webgunean, sare sozialetan eta kanaletan sartzea; horretarako, baimena ematen da erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko, eskuragarri jartzeko eta ustiatzeko, edozein modutan eta edozein eratan, baita hori guztia egiteko ezinbestekoa den beste jardun oro ere, bai zuzenean, bai hirugarren baten bitartez. Alde horretatik, baimen-emaileak badaki eta onartzen du bere irudia, ahotsa eta datuak ager daitezkeela emisioetan, transmisioetan, emanaldietan, material eta edukietan, web-atarietan, sareetan, kanaletan eta bestelakoetan, betiere jaialdiaren laguntzaile, partner, babesle edo antolatzaileari, hura kide den enpresa-taldeari edo lotutako beste edozein entitateri buruzko informazioa (sustapenekoak, komertziala edo publizitatekoak barne) agertzen bada.

Baimen hau eta baimenean jasotako eta/edo baimenaren ondoriozko eskubideak hirugarren bati eskualdatu ahal izango zaizkio, edozein tituluren bidez, bai eta lizentzien xede izan ere.

Baimen hau, bai eta baimenaren ondorio guztiak ere, eta baimenduak baimenaren babesean egiten duen ekintza, jardun, material eta/edo erabilera oro denbora-mugarik eta geografia-mugarik gabe ematen da, eta doakoa da; beraz, baimen-emaileak ez du inolako ordainsaririk edo diru-saririk jasotzeko ahalmenik izango.

1/1982 Lege Organikoaren (1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5koa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa) 2. eta 7. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera ematen da baimen hau. Halaber, 3/2018 Lege Organikoarekin (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa), 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin [2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena], eta 34/2002 Legearen (34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa) 21. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorruta, sinatzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak eta adingabearenak tratatzeko, eta adierazten du konpainiaren pribatutasun-politika irakurri duela eta onartzen duela. Honako esteka honetan dago

politika hori: <https://azkenarockfestival.com/eu/pribatasun-politika/>. Tratamendua publizitate, sustapen, informazio eta/edo merkataritza xedeekin egingo da, eta ardura ARF VITORIA GASTEIZ S.L.,-rena izango da (Bilbao (Bizkaia), Ventosa Bidea 46, 1ºD, 48013). Datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, ezeztatu edo aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzu, bai eta datuak eramateko eskubidea ere, harremanetarako helbide honetan: dpo@lasttour.net. Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazioa egiteko eskubidea izango duzu.

Stua.: _____